



CLIC JARDUERAK “BREMENGO MUSIKARIAK”

EGILEA: MIREN GARRALDA
ITZULTZAILEA: ORIXE TALDEA

Ipuinaz baliatzen naiz animalien onomatopeiak irakasteko ikasleei. Horrela euskaraz nola egiten diren ikasiko dute.

Astoak: Ia, ia, ia!

Txakurak: Rau, rau, rau!

Katuak: miau, miau!

Oilarrak. Kukuruku!

Bide batez, lau musika tresnaren tinbrea eta izenak erakusteko aukera dut: biolina, tinbalak, gitarra eta ahotsa. Honekin batera beste alderdi hauek ere lantzen dira programan zehar:

1.- Animalei buruzko esaldi batzuk agertzen dira idatzita:

- Astoak txakurra topatu zuen
- Astoak eta txakurak katua topatu zuten
- Astoak, txakurak eta katuak oilarra topatu zuten.
- Astoak, txakurak, katuak eta oilarrak lapurak topatu zituzten.

2.- Beste esaldi batzuek musika tresnak eta pertsonaiak elkartzen dituzte:

- Astoak biolina jotzen du.
- Txakurak tinbalak jotzen ditu
- Katuak gitarra jotzen du
- Oilarrak ahotsaz abesten du.

Lehenengo hamar jarduerak ikuskaketa erakoak dira: pertsonaien gainean klik eginez gero haien ahotsa entzuten da edo bestela jotzen duten tresna eta, entzun ahala, onomatopeia edo tresnaren izena idatzita agertzen da beheko leihatilan.

Hurrengo zazpiak puzzleak dira ipuinaren irudiak antolatzeko.

Bestalde, beste hiru asoziazio ariketa daude pertsonaiak, musika tresnak eta haien izen idatziak elkartzeko.

Jarraian identifikazio ariketen bidez esaldiak aurkezten dira, geroago eskatuko zaizkien asoziazio ariketak egin ahal izateko.

Geroago lau jarduera proposatzen dira esaldiak ordenatzeko. Hasierako mezuak galdera egiten du eta gero erantzuna ematen du.

Beste identifikazio ariketa bat dator hurrena esaldi bati erantzuna idatziz eta entzunaraziz ematen duena.

Azkenik asoziazio konplexuetako bi jarduera datoz .